	ONATIKO UDALA Erregistro Data 2015 APR 28
	SARRERA IRTEERA 871

ONATIKO BILDU UDAL TALDEAK ARANTZAZUKO HARROBIAREN INGURUAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA:

2015eko Martxoaren 25eko dataz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailetik bidalitako idatzi bati sarrera eman zitzaion Oñatiko Udaletxean.

Idatzi honetan honokoak aipatzen dira:

-”Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan hasiera ematen diogu, Oñati (Gipuzkoa) Áridos Aloña S.L.k sustatuta, “Gomistegi” ustiaketa emakida, 4790 zenbakikoa, ustiatzeko proiektuaren ohiko ingurumen inpaktua abalua egiteko aurretiazko kontsulten izapideari”

-”Prozedura Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenarekin amaituko da, eta hori ematea Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio...Ezin da baimendu proiektua, baldin eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren prozedura betetzen ez bada”.

Arantzazuko harrobia 1961 urtea hasi zen ustiatzen Patricio Etxeberria enpresarako lehengaita ateratzeko.

Duela 30 urte ingurutik gaur egun arte Áridos Aloña S.L. enpresa da ustiapenarekin jarraitu duena.

2001eko Irailean, aipatu enpresak Eusko Jaurlaritzari informazio eskaera luzatu zion Arantzazuko harrobiaren anpliaziorako. Bertan Kortakogain aldera beste 95,000 m²ko azalera izango zuen ustiapen baimen berrirako informazioa eskatzen zen. Beste 50 urte ingururako harrobi jarduera, alegia.

Aipagarria da 2002ko Otsaila eta Martxoan, Arantzazuko auzotarrak eta Eguzki taldeak harrobiaren balizko handitze baten aurrean egin zituzten mobilizazio eta agerraldiak.

Urte batzuetako ixiltasunaren ondoren, berriro ere mahai gaineratu da Arantzazuko harrobiaren afera. Oñatiko Udaletik, 2015eko Apirilak 20ko dataz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera iada bideratu da harrobiaren handitze batek izango lituzkeen eraginaren inguruko txosten teknikoa.

Ez deritzogu inolaz ere onargarria gaur egun Natura 2000 sarean sartuta dagoen Aizkorri Aratz Parke Naturalean ingurumenarekiko hain kaltegarria den harrobi ustiapen jarduera garatzea.

Oraindik eta larriagoa iruditzen zaigu Áridos Aloña S.L enpresak harrobiaren handitze baterako baimenaren tramitazio prozedura berriz ere martxan dagoela ikusita.


Gogoratu behar da, proposatzen den handitze eremuaren inguruari honoko babes neurriek eragiten diotela:

- Oñatiko Udaleko arau ordezkietan nekazal eta abeltzantzarako babes bereziko gune izendapena.
- Herri Onurako Mendia den aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Arau Forala.
- Naturaren babeserako 16/1994 legean oinarritutako Aizkorri Aratz Parke Naturalaren izendapena.
- 92/43CEE Europar DirectiBan oinarrituta, Aizkorri Aratz parkearen "LIK" izendapena, "Natura 2000" sarearen baitan.

Oñatiko udaletik argi adierazi nahi dugu ez dugula inolaz ere onartzen egungo harrobiaren inolako anpliaziorik.

Honen aurrean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari eskatzen diogu Naturaren babeserako irizpideak lehetsi ditzala bere txostenean, ez bait dira inolaz ere bateragarriak Natura babesteko azken urteetan hartu diren neurriak eta Arantzazuko ingurune paregabearen suntsipena lekerkeen harrobiaren ustiapenari argi berdea ematea.

Oñatin, 2015eko Apirilaen 30ean.

A handwritten signature in black ink, appearing to be 'B. J. J.', written over a faint dotted line.